

- 5) Hizkuntzaren alorrean ere badugu euskaldunok arazo larriak, ez baikatoz bat administrazioan erabili beharreko hitzak euskaraz jartzerakoan, hainbatetan lana zaildu eta ahaleginik ederrenak alperrik galtzen direla. Ezinbestekotzat jo zen epe laburrera, alperreko lan aspergarnetan ez ibiltzeko, arazoari intenbideren bat bilatzea.
- 6) Bizitza modernoaren habiadura hain bizia delarik, oso urritzat jo behar dira administrazioa euskalduntzeko eman izan diren ahaleginak (kontutan hartu behar da oraindik udal gehienetan ez dutela plangintzarik ere egin). Bestalde, sarri askotan, burutzeko baliabide egokirik gabe egin izan dira, ondorioz erakunde arduradunen aldetik «inertzia» kaltegarri hori zuzentzeko bideak bultzatu beharra izanik.

Beste hainbat puntu ere aztertu zen bilera horietan. Esan bezala, ezin hemen guzti horien berri eman. Hala ere, eredu gisa, aspaldidanik gogotsu euskarari inoera bilatu nahian ari den Andoaingo udaleko esperientziaren berri zabala eskaini nahi dizuegu, nola lan egin irakatsi eta bide berriak egiten ikasteko argi izan dadin.

Patxi Uribarren

Sarrera

Komeni da, lehenik eta behin, honako hau esatea: nik hemen, ahalik eta modurik hoberenean, azalduko dizkizuedan lan apur hauek, batzuk dagoeneko martxan jarriak eta burutuak diren bitartean, beste batzuek oraintxe martxan jartzen ari garenak direla. Era berean, oraindik martxan jartzen hasi ez garenik ere bada, bainan epe motzean horiei ere ekiteko erabakia dugunez, hoiengana ere egingo dizuet.

Gaia erabat sartu aurretik, komeni da baita ere, labur-

labur bada ere, azken bolada honetan egin duguna, orain egiten ari garena eta etorkizunean, epe motzean, egin asmo dugunaren erabakia hartzeko zein metodo edo prozedura jarraitu dugun azaltzea:

1. Andoaingo herriaren azterketa soziolinguistikoa egin zen: ikerketa minimoa, alegia. Errezetak asmatu eta aukeratu aurretik, sendatu nahi genuen gaitza hobeto ezagutzeko hain zuzen ere.

2. Egoeraren berri eduki ondoren, «Andoaingo Udaleko eta Udalerriko hizkuntz normalizaziorako jardunaren ardatzak» izeneko txostena idatzi genuen, luze eta sakon eztabaidatu ondoren.

3. Ardatz orokor horien garapenerako eta aplikaziorako markoa definitzen duen Udal Ordenantza, euskararen erabilera normalizatzekoa, prestatu eta onartu da.

Hiru puntu horietariko azkena hartuz, Udal Ordenantza horren izpiritua eta egitura honako hau da: izpituari dagokionez, euskararen erabilera normalizatzeko legeriaren garapena eta aplikazioa definitzen dira, indarrean dagoen legeria horren arabera Andoaingo Udalarri bere esparruan betetzea dagozkion obligazioak zehatzuz. Hori esanda, imajinatuko duzue zein den Ordenantzaren egitura: lehenik sarrera orokor baten ondoren, Andoaingo Udalak bere herritarrei aitortzen dizkien hizkuntz eskubideak jasotzen dira. Ondoren, bigarren kapituluan, Andoaingo Udalaren barne funtzionamendua euskalduntzeko neurriak definitzen dira, batez ere Euskararen Legearen eta, oso bereziki, lehen aipatu dudana 250/1986 Dekretuaren bidetik. Hirugarren kapituluan, euskararen erabilera Andoaingo Udalerriari bultzatu eta normalizatzeko Udalak egin behar duena definitzen da, zenbait gauza oso zehatz eta beste zenbait, normala denez, ez batere zehatz. Eta, azkenik, laugarren Kapituluari, guzti horretarako Udalak duen eta izango duen azpiegitura definitzen da. Bukacran bada, baita ere, zenbait xedapen. Gure gaia «Udala eta Udalerria» denez, nik hemen hirugarren Kapituluari bakarrik

azalduko dizuet, euskararen erabilera Andoaingo Udalerrian bultzatu eta normalizatzeari buruzkoa, alegia.

Halere, eta gaia beharbada hobeto kokatzeko, prozedurako lehen puntura itzuliko naiz, azterketa soziolinguistikora alegia. Beraz, labur-labur, Andoainek dituen ezaugarri linguistiko nagusiak azalduko dizkizuet, Errolda eta zentsuko datuen arabera batetik, eta aipatu azterketa soziolinguistikoaren arabera bestetik.

1. Euskaraz ulertu, hitzegin, irakurri eta idazteko gaitasuna.

86ko Erroldaren arabera: (ikus koadroa).

81eko Erroldarekin alderatuta: %4,5aren alde.

Ondorioak: euskalduntze eta alfabetatze beharra.

2. Euskararen presentzia bizitza publikoan.

	bietan %14
-Presentzia grafikoa	euskaraz %25
	gaztelaniz %61

Euskaraz dakitenak: %56a = %41 (ongi) + %15a (zerbait)

-Entzunezko presentzia	Parkeak
(hitzegiten dena,	Kaleak
alegia ez da %15era iristen)	Jolastokiak
	Tabernak

-14 urtetik beherakoetan ez da %12ra iristen.

3. Jarrera eta erabilpena (inkesta pertsonala)

Erabilpenari dagokionez, familia barruan familiako gaietaz hitzegiteko eta elkarrizketa arruntetan erabiltzen da euskara (%80), eta oso gutxi, izugarritzko aldeaz gainera, nahiz eta familia barruan izan eskola gaietaz, gai politiko eta sozialetaz hitzegite-rakoan (%25a jaisten da). Familiak kanpo, lagunarteko elkarrizke-ta arruntetan erabiltzen da gehienbat (%70), baina hor ere %25a jaisten da, lagunartean izan arren gai sakonak tartatzen dire-nean. Irakurketari dagokionez, %53ak ez duela euskaraz irakur-tzeko ohiturarik esaten du, eta %12,5ak ez duela euskara behar

adina menderatzen (hemen batzuk, gehienek, euskararen zailtasuna jartzen dute arrazoitzat, eta hurrena gaia ez ulertzea).

Testu elebidunen aurrean, %60ak gaztelerazkoa, irakurtzen du. Jarrerak oso baikorrak, edo hobe esan, aldekoak dira.

Gatozen orain, egoera honen aurrean, eta Udaletik Udalerriara begira egiten denera mugatuta, lehen aipatu dudan Ordenantzaren hirugarren kapituluak irekitzen duen bidea ikustera batetik, Udalak alor horretan planteatu dituen helburuak ikustera bestetik, eta egin denaren, egiten ari denaren eta egin asmo duenaren berri ematera azkenik.

Lehenik esan behar da, helburuak ezberdinak izan arren neurri handi batean interrelazionaturik daudela (hau da, helburu bat izan liteke alfabetatze maila handitzea, eta beste bat erabilpena bultzatzea, baina bistakoa da alfabetatze maila handitu gabe nekez handitu litekeela esate baterako irakurketa alorreko erabilpena, eta era berean, alderantziz ere, alfabetatzearen soluzio bakarra Euskaltegia ez denez, alfabetatze maila handitzeko oso baliagarri izan bailiteke euskaraz irakurtzeko produktu egokiak kaleratu eta herritarren esku jartzea). Helburu guztiak, beraz, neurri batean behinepein, interrelazionaturik daude, baita helburu horietarantz bidea egiteko burutzen diren ekintzetariko asko ere.

* Ordenantza honetako hirugarren kapituluaren lehen artikuluan helburu orokorrak azaltzen dira: (ikus 28.a) (1)

* Orain, honen ondoren, hiru bloketan sailkatuta azalduko dizkizuet helburu horien bila egin diren, egiten ari garen eta egin asmo diren lanak. Hauek lirateke hiru sail horiek: euskalduntze eta alfabetatzea, presentzia grafikoa eta entzunezkoa bitzita publikoan eta erabilpena orohar.

1. Euskalduntze-alfabetatzea

Helduei dagokienez, Udal Euskaltegi Publikoa irekitzeko erabakia hartua da eta horretarako gestioak egiten ari da Udala.

Ordenantzan ere ematen zaio erregulazio konkretua arazo honi: (ikus 34. artikulua). (2)

Oraingo egoera zera da bi euskaltegi pribatu daude (librea eta homologatua), eta horiei orduko eta ikasleko, *barcno* baten arabera, subentzio bana ematen die Udalak. Orain, ordea, erantzukizun hori beregain hartzeko erabakia hartu du Udalak.

Haurrei dagokionez, bi puntu aipatuko nituzke:

-Hautzaindegiarekin lotua bata (ikus 33. artikulua). (3)

-Eskolaurreko matrikulazioarekin lotua da beste puntua. (ikus 32. artikulua). (4)

Kanpaina hau azken hiru urteotan egin da. Alde batetik, Hezkuntzako Presidenteak, Euskara Batzordekoak eta Alkateak sinatutako gutun pertsonala bidaltzen zaie aurreinskripzioa egiteko urteak dituzten haur guztien gurasoci. Gutun horretan, euskara menderatzeari dagokionez, hizkuntz eredu bakoitzak dituen alde on edo txarren berri ematen zaie, eta euskararen ikuspegitik urteotan emaitzarik hoberenak eman dituzten ereduetan matrikulatzeko gomendioa egiten zaie, beti ere beraiek duten eskubidea salbu utziz eta guztiz errespetatuz. Horrezaz gain hitzaldi bat ere antolatzen da, gurasoentzako. Hitzaldi hori pedagogi arloan aditua denak eman ohi du (aurten, esate baterako, Pedagogiako Doktore batek), hizkuntz eredu bakoitzaren emaitzak azalduz eta gurasoek dituzten kezkek argituz. Triptiko informatibo bat ere argitaratzen da. Aurten, saio honen eragina neurtu dugu, emaitzak ondorengoak izan direlarik: iaz, A ereduari %17a, B ereduari %50a eta D ereduari %33a. Aurten, A ereduari %5a, B ereduari %52a eta D ereduari %42,5a. Gainera, iaz B eta D ereduak zituzten eskoletan, aurten D ereduari B ereduari baino gehiago inskribatu zaizkie.

Iaz, eskolaurreko oraindik ere A ereduari bi eskoletan zegoen. Aurten, batek, aukera eman badu ere, inor inskribatu ez denez, datorren urtean ez du A eredurik izango eskolaurreko lehen urtean.

2. Presentzia grafikoa eta entzunezkoa

Presentzia grafikoari dagokionez, honako hau da Udalak bultzatzen duen politika: (ikus ordenantzako 31. art.) (5)

Hemen, ikusi duzuen bezala, presentzia grafikoa ez ezik entzunezkoa ere bermatzeko bide bat dago irekita, gutxienez Udalak bere dirulaguntzen truke garantizatu dezakeena.

Presentzia grafikoarekin jarraituz (ikus 30. art.), (6) aipagarria daiteke garraio publikoei buruzkoa ere, Euskararen Legeko artikulua baten aplikazioa baino ez dena. Hori, neurri txiki batean eginda. Neurri txikian esaten dut zeren eta bai baitaude oraindik ukitu ez ditugunak (RENFE eta zenbait autobus linea). Oraingoz, gertuenekoak ditugun bi autobus lineatan hartu dugu iniziatiba, legea bete dezaten eskatu diegu, eta betetzen ari dira, guztiz ez bada ere aurrerapausoa eman da behinepean.

3. Erabilpena ikus (35. artikulua) (7)

Ikus dezakezuen bezala, puntu hau ez dago batera zehatz jasota Ordenantzaren. Baina nahita daukagu horrela utzita, zeren eta ezinezkoa ez dakit den, baina oso zaila da erabilpenari buruzkoa honelako dokumentu juridiko batcan zehaztea. Izan ere, erabilpena bultzatzeak eskatzen duena, sektorez sektore, eta behar bada sektore jakin bateko azpisektore batetarako programa konkretuak, aldi-aldi helburu zehatz eta txikien baitan prestatu eta berrikusi behar direnak, prestatzea eta hezurramitzea baita.

Erabilpenaren alorrean eman ditugun pausoen artean nere iritziz azpimarragarrienak edo nabarmenenak direnak azalduko dizkizuet labur-labur:

Erabilpenak, maila orokorrean hartuta, beste zenbait gauzen artean, giroa eskatzen du, euskaraz bizitzaren aldeko jarrera indartuko duen giroa. Sentidu horretan, urtero antolatzen du Udalak zenbait ospakizun erakargarri osatutako aste edo hamabostaldiren bat. Dena den, era honetako gauzak, kulturarekin lotura handia dutenez, Euskara Areatik kanpo uzten ari gara,

Kultura izan dadin bere jardun normalean, euskararen normalizazio ikuspegia eta erizpidea bereganatuz, saio kulturalak antolatzen dituen. Adibide ximple bat jarritz euskal antzerkia, euskal kantaldiak, ...beharrezkoak dira euskararen aldeko giroa sortzeko eta indartzeko, baina Euskara Area baino egokiagoa dela deritzagu Kulturakoa hori antolatzeko. Baina, jakina, beti ere antolatzen baldin baditu.

Giroari dagokionez, aipagarria daiteke Euskal Herriko Txirrindulari Itzulia dela-ta izandako esperientzia. Duela 2 urte E.H.T.I. Andoainen bukatzen zela eta Txirrindularitza Federazioaren, Jaurlaritzako Kirol Sailaren eta T.I.-ren antolatzaileren aurrean inizatiba hartu zuen Udalak, T.I.a Andoaina iristean euskara gutxienez gaztelaniaren neurri berean erabili zedin, eta bozgarailuz ematen ziren mezuak lehenik euskaraz eman zitezten. Jaurlaritzako H.P.I.Nak ere begionez jo zuen inizatiba hau, eta berak ere egin zuen zenbait gestio. Gorabehera askoren ondoren, planteatutako helburua lortu zen.

Andoingo Udalerriaren ezaugarri linguistikoak aipatu ditudanean, 14 urtetik beherako haurren artean erabilpena ez dela %12ra iristen esan dut. Hori dela-ta, alor horretan bultzatzen ari garen lanak honako hauek dira:

- Haurrentzako aktibitate bereziak hilero-hilero, beti ere egun jakin batean: antzerkiak direla, txotxongiloak direla, pailasoen saioak, etab. Aktibitate hauetan garrantzitsuena iraunkortasuna da: hilero-hilero egitea, horrek azken batean ohitura sortzen baitu.

- Gazteekin gauza bera egin asmo dugu: musikari, idazle, kirolari eta horrelako pertsona ezagunekin elkarrizketa eta hitzalditxo informalak antolatuz. Hau asmoa da oraindik. Bi gauzaok, haurrena eta gazteena, kulturaren esku dago.

- Berrito ere haurrengana itzuliz, Eskolaurte eta OHOrak, aipagarria daiteke beste honako hau ere: pertsonai ezagunen bi-xitak eskoletara (kirolari, idazle, musikari, telebistako aurkezle, pailaso, eta horrelakoak). Hau, orain arte, aldi-aldi egin du-

gun zerbait da, baina uda ondoren, eskolekin elkarlanean, modu sistematikoan eta iraunkorki egingo da. Hontan ere truko iraunkortasunean baitago. Lan horren helburua, haurrek, askotan, zoritxarrez, gurasoengandik eta giro sozialetik jasotzen ez duten motibazioa, euskaraz bizitzeko motibazioa, berientzat eredu edo idolo direnengandik jasotzeko bidea ematea da.

- Era berean, uda ondoren, 88-89 ikasturterako alegia, eskolarteko aldizkaria argitaratzeko dirulaguntza eskainiko zaie eskola guztiei. Aldizkari hori haurrek beraien eta euskara hutsean idatzia izan beharko du.

- Bestalde, oraintxe eskuartean dugu, datorren hilean, uztailean, goizeko 9tatik 1etara bitartean egunero burutuko den «Goazen jolastera» izeneko aktibitate programa. Hau Andoainen bertan, herria hobeto ezagutuz eta jolasgiroan egingo den udaleku irekia da, eta bere helburua, haurrek ikasturtean zehar ikasi duten euskara uda partean ez ahaztea eta ahal bada gehiago ikastea da. Aurten B ereduko 200 haurrek partehartuko du ekintza honetan. Jakina da B ereduko haurrek, etxean euskaraz hitz egiteko aukerarik ez badute, uda partean atzerakada nabarmena ematen dutela. Horrek euskara karga bihurtzeko arriskua ere badu. Inportantea deritzagu, bestalde, honen bidez lortu nahi dugun beste helburu hau ere: udaleku hau oso-osorik euskaraz egingo da, eta eskola ezberdinetako haurrak elkarren artean nahastuko ditugu taldez-talde, horrela lagun berriak euskaraz komunikatuz egingo dituztelarik. Euskaraz hitz eginez elkar ezagutu dutenek etorkizunean, elkarrekin egotean, errezago joko dute euskarara.

- Helduen alorrean, zenbait gauza bereziko nituzke. Alde batetik, helburua irakurtzeko zaletasuna eta ohitura sortzea izanik, ORRIA izeneko argitalpen bat kaleratu eta banatzen dugu hilabetero. Argitalpen horren ezaugarriak honako hauek dira:

* Euskara hutsean idatzia da, baina euskarari buruz ez da ezertxo esaten.

- Argitalpenaren %80 elkarriketa batek osatzen du, beste

%20a denborapasako gauzek osatzen dutelarik (gurutzegrama, asmakizun, sukalderako errezetak,...)

- Nahiko letra handian idazten da, eta bi argazki handi azaltzen dira, lehen begiradan astuna izan ez dadin eta argazkieren erreklamoak beharturik irakurtzen hasi dadin.

-Oso euskara errezean idazten da, esaera laburrak erabiliz.

- Elkarrizketatua, argazkian azaltzen dena, beti Andoainen oso ezaguna den norbait izan ohi da.

Argitalpen hau gero eta eragin handiagoa izaten ari da, euskaraz ez dakitenen artean ere zenbait jende kezka eraztera iritxi delarik, hain zuzen ere argazkian azaltzen denak elkarrizketan zer esaten duen ulertzen ez duelako.

- Ildo beretik jarraituz, datorren urterako, Arantzazuko taokoaren edo Bernardo Atxagaren egutegiaren antzeko egutegi-astekaria argitaratzeko lanetan gabilta. Egutegi-astekari horretan Andoainekin zerikusia duten kontakizun eta pasadizo laburrak jasoko dira, jendeak irakurri ditzan.

- Datorren urtean, alor horretan, guzti honekin jarraitzeaz gain, euskaraz idatzitako liburu eta aldizkarien zerrenda komentatuak argitaratu eta banatu nahi ditu hilean edo bi hilez behin. Lan hau Udal Liburutegiarekin eta herriko liburutegien elkarlanean egingo da.

- Bi hizkuntza ofizialetan idatzita argitaratzen diren testuetan (festa programa eta horrelakoetan) gaztelera idatzitako zatian, euskaraz jakin arren gaztelaniazkoa irakurtzen ari denari zuzendutako bizpahiru esalditxo tarteratzen dira parentesi artean, beste alderdian euskaraz idatzitakoa baduela gogoraraziz, hala nahi badu irakur dezan.

- Aurrezki Kutxa eta bankuen esparruan, beste zenbait Udalekin batera, *Kontuak euskaraz!* izeneko saioa ere egin zen Andoainen. Saio hura, euskaraz hitzégiten dakitenek Aurrezki Kutxa eta Bankuetan dirukontuetan euskaraz hitzegin dezaten.

bultzatzeko egin zen, baita kutxazain automatikoa euskaraz erabil zezaten ere, hala nola taloiak euskaraz idatz zitzaizkien. Saio horiek eragina izan zuten. Aurretik eta ondoren egin genituen neurketen arabera, kanpaina aurretik taloi guztien %1,26a bakarrik idazten zen euskaraz, eta kanpaina ondoren %10,1a. Eraginik haundiena Aurrezki Kutxetan izan zuten, %1,30etik %16ra igo bait zen.

- Eta bukatzeko, erabilpenaren alorrean beste aspektu bat, nere eritzian oso garrantzitsua dena, azpimarratu nahi nuke: udalaren eta herritarren arteko harremanetan ematen den euskararen erabilpena. Egia da, eta hala aitortu behar da, herritarren aldetik oso presio txikia (ia batere ez) egiten dela Administrazioaren aurrean. Ez naiz arrazoiak aztertzen hasiko, baina errealitatea hori da: herritarrek ez dituztela beren hizkuntz eskubideak baliarazten. Honen aurrean, Udalak bi jarrera izan ditzake, edo hobe esan hiru: bost axola izatea guztia bata, demandari erantzutea bestea, eta demandari erantzuteaz gain demanda sortarazteko eta handitzeko ahalegina egitea bestea. Nere eritzian, euskararen normalizazioa helburu duen Administrazioak, bistakoa da hirugarrenari heldu behar diola, eta heltzekotan etxe barrutik heldu behar diola. Alor horretan Andoaingo esperientzia bat eta Ordenantzaren jasotakoaren arabera orain burutzear dugun proiektua aipatuko dizkizuet:

- Esperientzia, Errolda Fiskaletako ordainagiriekin izandakoa da. Ordainagiri horiek, ordenagailu bidez egiten direnetik oso ximpleak direla kontutan hartuz, euskara hutsean egiteko erabakia hartu zuen Udalak. Aldez aurretik hori herriko zergapeko guztiei jakinerazi zitzaizkien gutun baten bidez. Gutun horrekin batera Ordainagrietako hiztegitxo bana bidali zitzaizkien guztiei, eta edozein kasutan, hala nahi zuenari gaztelaniaz egingo zitzaioela jakin erazi zitzaion. Guztiok baitugu, hala nahi izanez gero, gaztelaniaz jasotzeko eskubidea. Era berean, euskaraz idatzitakoa onar zezaten animoak ematen zitzaizkien gutunean, ordainagiria hiztegitxoaren laguntzaz errez uler zitekeela esanez. Guzti horren aurrean, gaztelaniazko ordainagirien aukera %14,5ak egin zuten, nahiz eta hasieran esan bezala Andoainen

euskaraz ongi edo zerbait dakitenak %56a izan. Oso pauso txikia da, baina inportantea, oso txikia den esparrutxo bat behinepein euskararako irabaztea suposatzen baitu. Beste herri batzutan ere (askotan ez, baina bat baino gehiagotan bai) egin da hori bera, eta antzeko emaitzak izan ditu.

- Proiektua berriz, Ordenantzaren 5. artikulua direna da (ikus 5. artik. (8) Hori garantia minimo batez egiteko, lehenik sensibilizazio kanpaina bat egingo dugu, herritarrei esanez Udalarkin harremana euskaraz edukitzea beren, eta ez beste inoren, esku dagoela. Udalak horretarako aukera ematen diela jakin eraziko zaie, eta harreman gune hori euskalduntzeak euskararen normalizaziorako duen garrantziaz jabe daitezela saiatuko gara. Ondoren, 1986ko Errolda betetzean, euskaraz ongi edo zerbait badakitela esan zutenei, banan-bana zuzenduko gataizkie zentsu horretan sartzeko erabakia hartu duten ala ez galdetuz.

Patxi Bazterrika
(Andoaingo euskara zerbitzuburua)

Udal ordenantzako artikulua:

- 1) «Hiru dira euskararen erabilera Andoaingo udalerrian normalizatzeari dagokionez Udalak bere gain hartzen dituen helburu nagusiak: euskaraz dakiten herritarren kopurua piskanaka-piskanaka gehitzea, gaurko euskararen erabilpena ziurtatzea eta nahiz euskaraz dakitenek nahiz ikasten ari direnek erabil dezaten bultzada iraunkorra ematea».
- 2) «Hizkuntz normalizazioaren esparruan Udal honen xede nagusietarikoa Andoain euskaraz hitzegiten dakitenen kopurua gehitzea eta hitzegiteko gai direnak alfabetatzea denez, eta kontutan hartuz alde batetik Andoaingo biztanleriaren portzentaia handi batek ez dakiela euskaraz eta, bestetik, eskoletatik ere ez direla denak euskara behar bezala menderaturik irtetzen, eta halaber, kontutan hartuz erantzunkizun publikoa dela euskalduntzearena, helduen euskalduntze eta alfabetatzerako eskaintza publikoa egingo du Udal honek.

Ondorioz, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzeko Erakundea sortarazten duen eta Euskaltegiak araupezen dituen azaroaren 25eko

29/1983 legearen ildotik, Euskaltegi Publikoa sortzeko urratsak emango ditu Udalak».

- 3) «Ama hizkuntza euskara ez baizik gaztelania edo beste edozein hizkuntza duten haurrek euskara nekerik gabe ikasi ahal izan dezaten bizitzako lehen urteak oso garrantzitsuak direla kontutan hartuz, haur jaio berriak dituzten gurasoei sistematikoki zuzenduko zaie Udala Hautzaindegi zerbitzuaren berri emanez eta zerbitzu horrek, euskara ikasteari dagokionean, beren haurrentzat dituen alderdi onak jakin eraziz».
- 4) «Andoainan ematen den irakaskuntza ez unibertsitarian, Uztailaren 11ko 138/1983 Dekretuan xedatutako hizkuntz ereduetako eredurik euskaldunenak gero eta gehiago heda daitezzen saio bereziak egingo ditu Udalak, batez ere matrikulazio epeak irekitzean, eta B edo D ereduak aukeratu dituzten haurrak, antolamendu arrazoiak direla medio eredu horietan eskolatu gabe gera ez daitezzen».
- 5) «Azaroaren 24eko 10/1982 oinarritzko Legearen 26. eta 27. artikuluetan xedatuaren arabera, euskara gizarte-esparru guztietan eta publizitatean erabili dadin eta, orohar, gizarte bizitzan euskararen presentzia gehi dadin neurri egokiak hartzea dagokie botere publikoei».

Hortaz, Andoaingo Udalak, aipatu xedearen harian eta bere iharduketa eremuan, honako neurriok hartu eta beteraziko ditu:

1. Kultur, kirol eta aisi elkartei subentzioak ematekoan hizkuntzaren erizpidea ere kontutan hartuko da. Ondorioz, Andoaingo Udalarengandik dirulaguntzaren bat jasotzen duten elkarte eta entitateek, pertsona fisikoek nahiz entitate juridikoek, beren ihardun subentzionaletan argitaratzen dituzten idatzi, iragarki, ohar eta gainerakoak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko dutelarik. Era berean, ospakizun konkretuetan bozgarailu bidez ematen dituzten mezuak ere euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko dituzte.

Euskaraz eta gaztelaniaz egiten diren adierazpenetan, eta batez ere ahozkoetan, euskarazkoari eman beharko zaio lehentasuna, euskarazko adierazpenez jabetu litekeenak elebidunak bait dira.

Subentzioak eskuratzeko baldintzetariko bat izango da guzti hori, subentzio hartzaileek, subentzioa jasoko badute, derrigorrez bete beharko dutelarik.

2. Udal instalazioak eta materialak erabili ahal izateko ere aurreko puntuan aipaturiko baldintzak bete beharko dira, eta egin ohi diren egiaztapenetariko bat izango da hizkuntzari buruzkoa ere.
3. Herriko festetako barraketako idatzi, iragarki eta txartelak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz emango dira (...)
4. Publizitatearen gaineko udal zergaren kobrantzarako Ordenantza Fiskala aplikatzen zaien errotuloei dagokienez, honako erizpideon arabera emango dizkie dirulaguntzak Udalak izaera ofizialekoak ez diren merkatal eta zer-

nahi motatako entitateei:

4.a. Euskara hutsean idatzitako errotuloa jartzen duenari, errotuloaren zenbatekoaren %40a ordainduko zaio, 15.000 pezetako mugapean.

4.b. Errotulo elebiduna jartzen duenari, errotuloaren zenbatekoaren %15a ordainduko zaio, 7.000 pezetako mugapean.

4.c. (...) 4.d. (...)

5. Artikulu honetako lau puntuetan xedatua betetzeko, dohain eskainiko ditu Udalak bere Euskara Zerbitzuaren itzulpen eta aholkularitza, eta horrela jakin eraziko zaie interesatuei.

6) «Andoaingo garraio publikoetako inprimaki, abisu eta adierazpenak oro euskaraz eta gaztelaniaz egin daitezzen eta mezuaren ulergarritasuna bermatu ahal litekeen euskara hutsean egin dadin neurri-eraginkorrak hartuko ditu Udalak. Era berean, abiapuntua Andoainen ez eduki arren udalerrri honetan geroak duten garraio publikoetako arduradunei ere gauza bera egin dezaten eskatuko zaie.

7) «Euskaraz dakitenak euskaraz bizi ahal daitezzen, gizarte bizitza euskalduntzeko saio bereziak egingo ditu Udalak, bai sektore ezberdinak euskalduntzeko prozesuak bultzatuz, bai haur, gazte eta helduentzako kultur eta aisi ospakizun euskarazkoak antolatuz. Era berean, euskarazko kreazioa indartu eta euskaraz idatzi eta irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko xedez, bidetako erizten dituen zenbait ekintza burutuko ditu Udalak: andoaindarrak euskarazko idatzitako lanak argitaratzeko laguntzak direla, literatur lehiaketak direla, etabar.

8) «Hiritarrek Udalarekin beraiek aukeratutako hizkuntza ofizialean jardun dezaketenez eta kontutan hartuz gaztelania hiritar guztiek ezagutzen dutela, Udalarekin harremana euskara hutsean eduki nahi duten hiritarren zentsua egingo du Udalak. Zentsu horretan sar daitezzen izena ematen dutenei euskara hutsean zuzenduko zaie Andoaingo Udala.